

PIERRE DUHOUR (1890-1968)

Euskaltzaindiko laguntzaille zen, 1966-an izendatua. Itzali da, 78 urte zituela.

Beskoitzen sortua, luzaz armadako mariñel ibilirik, Hazparnerat ezkondu zen. Hor bizi izan da geroztik. Alargundua aspaldi huntan, utzi ditu lau haur (seme bat eta iru alaba).

Eskualtzale porrokatua, 50 urtez anitz aldizkaritan eta anitz idatzi izan du. Bere lumez lagundu ditu bereziki: *Eskualduna*, *Herria*, *Gure Herria*, *Almanaka*, *San Frantses*, *Etxea*.

Liburu ttipi bat ere agertu izan du: *Erromako itzulia*.

Asko fedezale eta eskualtzale batasunetako zen. Pausatu da 1968-ko urtarrillaren 13-an.

P. Larzabal.

TORIBIO ECHEVARRIA IBARBIA (1887-1968)

Cacaras'en apirillaren 13,an il zan Toribio Echevarria, 1965-etik Euskaltzaindiaren laguntzaille zana.

Eibarren jaioa zan 1887-ko apirillaren 27-an. Autodidakta bazan ere jakinduriz ondo ornitua zan Toribio. Bere lenengo ogibidea grabadore izan zan damaskiñau lanetan. Ta, here ikastaroak buka gabeak ziranez, maillaz-mailla igoaz joan zan, Eibarko udaletzeko sekretaritzaz eramatezik, ALFA'ren sortzaille eta zuzendari (langilleen alkartasuneko kooperatiba bezala) izatezik Espaiñiako Campsa'ren buru izate-raiño. Orduko eibartar sozialisten buruetariko bat izan zan.

EUSKERA'n ikusi zuten argia, bere lanetarik, *Flexiones verbales de Eibar*, VIII-IX. 53/130 orrialdeetan (1963-64); eta, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*, X-XI, 1/658 or. (1965-66).

Euskeraz idatzitako lanak: *Ibiltarixanak* (Arrate'tikuen izketango alegiñak), bertsoz eta izlaurz, 495 orrialdeko liburua, Zarautz, 1967. Eta argitara gabea du bertatik kanpora gelditu ziran zenbait lan, *Ondakiñak* izenarekin aurtengo urtarrillean bildu zituanak egille berak (lan onen kopia bat nere eskuetan daukat). Biak Eibarko euskeraz idatziak.

Erderaz ere zenbait lan idatzi zituan. pentsaerak eta kritikak oiñarri dituala. Auek dira: *Metafisica a Urcola* (munduaren izateari buruz zituan iritziak), México, 1966. *La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo* (politikazko iritzi ta gertaeraz ornitua), México, 1966. *El Hijo del Hombre* (Nazaret'eko Jesus'en bizitza Ebanjalioak oiñarri arturik eta gaurko Kristautasunari aburuz), México, 1966. *Tres ensayos* (Del Trabajo, la Sabiduría y la Oración), México, 1967. Eta oiez gaiñera beste lan luze bat utzi du argitaratzeko, *Viaje al país de los recuerdos* izena duena, bi tomotan, bere gaztaroko istorioak eta esperientziak kontatzen dituana. Baditeke laister argitaratzea beste lanak argitara zituan Mexico'ko Impresiones Modernas, S. A. dalako etxeak.

Toribio, bai ideaz eta bai egintzaz, bere asmurik onenak eskeiñiaz igaro da mundutik. Tamalez, bere zartzarora erbesteraturik pasatu bear izan zuan, orrenbeste mai-